

## Ramon Agirreren hitzaldia, 'Badu, Bada' erakusketa eta afaria, lehen lauhilekoa amaitzeko

2013/01/07

Ezohiko eskola izan zen lehen lauhilekoko azkena, EKTko kideok lehendabizikoz Aretxabaletako fakultatea utzi eta Donostiako San Telmo museora gerturatu baikin, Ramon Agirreren hitzaldia entzun eta segidan 'Badu, Bada' erakusketa bertatik bertara ikusteko.

Antzerkigintzan ibilbide oparoa egindakoa da Agirre. Urte horietan guztietan bildutako esperientziatik aritu zitzaigun, azalduz nola hastapenetan antzerkiarekin lotura zeharo "erromantikoa" zuten, eta nola mundu profesionalerako jauzia egiteko ordua kasik oharkabean ailegatu zitzairen. Haren irudiko, orain 20 urte baino profesional hobeak daude egun euskal antzerkigintzan, baina antzerkiak gizartean duen eragina jaitsi egin da. Gisa berean, genero ikuspuntutik ere aldaketa dezentekoak izan direla nabarmendu zuen, "betidanik gizonezkoena izan den lurraldean" gero eta gehiago direlako emakumeek emakumeentzat idatzitako obrak. Horiek, eta beste hainbat gai izan zituen hizpide aktore donostiarrak.

'Badu, bada' erakusketak, osterara, euskarak (eta hizkuntza gutxituek oro har), hizkuntz-aniztasunaren munduan zein erronka dituen erakutsi asmo du, etorkizunera begirako gako batzuk emate aldera. Gure gaiarekin lotura estua izanik, gustura ibili ginen, eta eman zigun zer pentsatua.

Azkenik, Aratz erretegiko afari eder batekin amaitu genuen eguna, eta mahai inguruak luze jo zuen, bagenuen eta zertaz aritu.

Etzi, hilaren 9an, hasiko dugu bigarren lauhilekoa, Eñaut Elorrieta eta Josu Zabala musikarien eskolekin.



'Badu, bada' erakusketa,  
Donostiako San Telmo museoan